

# ZAZPI ARTISTA ELKARLANEAN

Diziplina ezberdinetan lan egiten duten zazpi artista elkartu dira Donostian, esparru horiek nola nahastu bilatu eta lankidetzan aritzeko. Lehen erakusketa arrakastatsu baten ostean, proiektu berriak sortzeko irrikaz daude.



LERRO HAUEK GAINEAN, ERAKUSKETAN GATO URBISTONDOK IZAN ZUEN OBRETAKO BAT.

EVA DOMINGO  
evad@hirian.com

Itsasoak zazpi artista elkartu zituen joan den urrian Donostian. Gai horren inguruan Grosen erakusketa bal zabaldu zuten diziplina ezberdinetan aritzen diren Mikel Barrerok, Iñaki Intxaustik, Asun Ramirez de Olanok, Myriam Gesalagak, Tito eta Luis Aguas anaiek eta Gato Urbistondok.

Elkarrekin burututako lehen esperientzia hori gustuko izan dute eta, jasotako harrera hain ona izan denez, elkarlan horretan sakonduz erakusketa berriak sortzeko irrikaz daude, Iñaki Intxaustik HIRIAN aldizkariari adierazi dienez. «Jaso ditugun iritziak oso onak izan dira eta jendearen jakinmina

piztu du erakusketak. Ez genuen horrelakorik espero. Proiektua aurrera eramateko gogo handitu egin zaigu», esan du artista honek.

Borondate horrek zer ekarriko duen galdetu diogu. Lehen erakusketan lotura Mikel Barrerok proposatutako gata izan zen; itsasoa, esan bezala. «Oso gai zabal eta emankorra da. Gainera, guztiok bizi izan gara itsasoari begira eta gure barnean dago modu batean ala bestean», esan du Intxaustik. Hurrengo erakusketan urrats berria eman nahi dute eta «elkarrekin sortutako obra» eskaini, gai ere aldatuz.

«Diziplina ezberdinetako artistak elkartu gara eta diziplina horiek nola nahastu bilatu nahi dugu. Honek ikerketa lana, saloa eta akatsa

## ITSASOAREN GAI EMANKORRA LANDU ZUTEN LEHEN ERAKUSKETAN

dakartza eta, bereziki, gure arteko lankidetzak sakona». Erronka horri aurre egiteko prest daude.

Unibertso ezberdin bat da artista hauetako bakoitzaren obra.

Myriam Gesalagaren artelanak batez ere txuri-beltzeko irudiak proposatzen ditu paper gainean, marra, ehundura eta orbanek osatuta. Ez da lan estatikoa; etengabe mugitzen da. Konposaketarako sena eta emaitzaren dotoretasuna dira bere obran azpimarragarri.

Asun Ramirez de Olanok maisuki lantzen du zeramika, zertxobait mespretxatua edo bigarren mailakotzat jo izan ohi den diziplina. Berak artelan bihurtzen du, lurren kolore, ehundura eta formak nabarmenduz. Beste material batzuekin ere nahasten du zeramika (burdinarekin, adibidez).

Gato Urbistondo pintoreak ohol gaineko tamaina handiko obrak eskaintzen ditu. Mugimenduz beteriko koadro handiak eta oso espresiboak izaten dira. Pintzelada aske eta trazu biziz lantzen du argia. Tito Aguasek bideo ekoizpena egiten du. Taldearen lehen erakusketan aurkeztu zuten lana itsasoan izaten den desorientazio sententziazko buruzkoa izan zen. Irudiekin batera agertzen den musika eta argazkigintza ondo zaintzen ditu, emaitza oso hunkigarri eta berezia lortuz.

Azken honen anaia, Luis Aguas, argazkilaria da. Azpimarratzekoa da argazki munduan egiten duen ikerketa lana. Bere argazkiak ehunduz eta kolorez osatutako akuarelarako paper gaineko artelanak dira. Laborategiko errebelatze prozesu konplexu baten bitartez lortutako emaitzak ikusgarriak izaten dira, beste hizkuntza plastiko bat lortzen baitu, ia magikoa.

Azkenik, Iñaki Intxaustiren teknika nagusia berak sortutako materialak erabiliz collageetan oinarritua dago. Errealitatea gutxitan errespetatzen duten lan plastikoean orbanak hartzen du garrantzia. Konposizioa eta mugimendua zaintzen ditu bereziki, plano ez-

berdinetako eszenatoki arkitektonikoak sortuz.

Gipuzkoako Artisten Elkarteak Iñaki Intxausti collage tailer bat ematera gonbidatu ondoren sortu zen talde honen erakusketa kolektiboa. Bertako bazkide den Mikel Barrero Intxaustirekin harremanetan jarri zen, proiektuaren proposamena egiteko. Gerora, aipatu beste artistekin zabaldu zen taldea.

## ABERASTASUNA

Artearen munduan ere lankidetzak beharrezkoak ote diren galdetu diogu Iñaki Intxaustiri.

«Artisten mundua, eta batez ere pintura eta eskulturarena, autonomo samarra da. Normalean, estudioan sartzen gara eta buruan bueltaka ari zaizkigun ideiak islatzen salatzen gara, bakardadean», azaldu du. Bere hitzetan, hori ez da ez ona, ez txarra. «Zaila izaten da ideia plastiko bat adieraztea eta askoz ere zailagoa elaborazio prozesua aurrera eramatea. Emaitza nahiko pertsonalista izaten da».

Beste artista batzuekin elkarlana planteatzen denean, «obra eta artearen ikuspuntua asko aberasten da, batez ere diziplina nahiz estilo ezberdinetako pertsonak izanda. Hori bilatzen dugu gure taldean, hain zuzen ere; esparru eta estilo ezberdinetako artisten elkarteak sortzea dugu helburu».

Taldeko hiru partaide Gipuzkoako Artisten Elkarteak bazkide dira. Herrialdeko artisten lana bultzatzeko elkarteak egiten dituen ahaleginak «itzelak» direla nuste du Intxaustik. Ilusio handia duten lagun asko daude Aldapetak egoitza. Erakusketak, tailerrak, lehiaketak, klaseak eta har antolatzen ditu elkarteak, eta proposamenak jasotzeko prest agertzen da, «sormena eta inizialiba baititu gogoan».

Artea kontsumitzeak gizabakoaren bizi-kalitatea hobetu dezake? «Eguneroko bizitzan inguratzen gaituzten gauza eta kontzeptu askoren inguruan egin dezakegu galdera hori. Artea maite dugun guztiarekin ezinbestekoa da bai besteek egiten duten lana, bai gure ikerketa plastikoa jarraipena ematea. Norbaiti allegatzeko gai bagara, harro sentituko gara».

## DENOK ♥ HIRIAN

Con cada número de HIRIAN que sacamos a la calle, más personas se convierten en fieles seguidoras de esta publicación. Por eso has visto tantos anuncios en este número de HIRIAN. La publicidad en estas páginas FUNCIONA. Somos un medio cada vez más leído y valorado, que desde 1999 ha crecido de una forma muy natural. Miles de fieles lector@s devoran cada mes sus páginas.

En septiembre de 2012 comenzamos una nueva etapa, con una mejor distribución, más y mejores contenidos y más páginas, y la acogida no ha podido ser más positiva. En 2013 seguiremos creciendo y llegando cada vez a más gente.

ES MOMENTO DE IR A MEJOR, DE SENTIR PASIÓN POR LOS PROYECTOS EN LOS QUE SE TRABAJA

HIRIAN ES LA PUBLICACIÓN MENSUAL GRATUITA CON MAYOR TIRADA DE GIPUZKOA.

INFÓRMATE SOBRE NUESTRAS TARIFAS PUBLICITARIAS: 943 395 655 · publi@hirian.com